

...eta

kitto!

903 zkia.
2014-X-10

HIRU ALDIZ...

**Eibar
Triatloi
Taldeak
25 URTE**



...KIROLARI!!!



Recalde

Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

Kirurgia

- Miopia
- Kataratak
- Presbizia

Begi lehorraren tratamendua



URRIAREN 17tik
26ra UNTZAGAN



- Eleberriak
- %10eko deskontuak
- Euskal diskagintza
- Aukerako liburuak

asteazken	asteburua
11.00 - 14.00	11.00 - 14.30
17.00 - 21.00	17.00 - 21.30

Eibarko Liburu eta Disko Azoka



Abokatuak • Aisialdia • Akademiak • Albaitariak • Alfonbrak • Altzariak • Argazkildendak • Argiztapena • Arkitektoak • Aroztegiak • Arroldegia • Aseguruak • Asesorak • Autoak • Autoeskolak • Bankoak • Belardendak • Bidaiak Bideo • Bideo klubak • Bitxitegiak • Bulego tresneria • Dekorazioa • Dentistak • Elektrizitate • Elektrodome... • Errehabilitazioa • Erreformak • Errotulazioa • Estankoa • Estetika • Farmaziaz • Funerariak • Garagardotegiak • Garraloak • Gasolind... • Haurzaindegia • Euskaltegia • Ikastetxeak • Hote... • Inprenta • Iturginak • Janaridendak • Jan... • Kirolendak • Koltxoidendak • Komunikabide... • Leioak • Lentzeria • Liburudendak • Loradendak • Kontz... • Anali klinikoak • Dermatologia • Dietetika • Oftalmologoak • Otorrinoak • Podologoak • Psikiat... • Optika • Ortopedia • Pertsianak • Pintu... • Sindikatua • Sofak • Sukaldeak • Tabernak • Ta... • Torlojugintza • Zeramika • Abokatuak • Aisial... • Argiztapena • Arkitektoak • Aroztegiak • Belardendak • Bidaiak Bideo erreportaiak • Elektrizitatea • Elektrodome... • Elkar... • Estetika • Farmaziaz • Ferretariak • Fo... • Gasolindegiak • Gozokiak • Gozotegiak • Hote... • Igeltseroak • Ileapalndegiak • Jantzi... • Jantzi... • Jatetxeak • Jostailu... • Komunikabideak • Komunitateak • Kompresio... • Loradendak • Makina saltzalleak • Mar... • Dermatologia • Dietetika eta nutrizioa • Errekonozit... • Podologoak • Psikiatria • Psikologoak • Mer... • Optika • Ortopedia • Pertsianak • Pinturak • Pizzeriak • Plastik... • Sindikatua • Sofak • Sukaldeak • Tabernak • Tapizeriak • Tatuajeak eta • Torlojugintza • Zeramika

GIDA 2015

eibar GIDA 2010
eibar GIDA 2007
eibar GIDA 2013
eibar GIDA 2011
eibar GIDA 2006
eibar GIDA 2012
eibar GIDA 2008
eibar GIDA 2014

943 20 67 76 - 943 20 09 18

EIBAR_{ko} ETXE GUZTIETAN

eta herriko komertzio, enpresa, bulego, ikastetxe, osasun-zentru... guztietan banatzen da

ASTEAN ESANAK

"Erlea desagertuko balitz mundutik, gizakiak lau urterako bizitza besterik ez luke izango. Erlerik gabe ez dago ez polinizatorik, ez belarrik, ez animaliarik, ezta gizakiarik ere. Jaten dugunaren %80 -gaztainak, zitrikoak, meloiak, ilarrak, babarrunak, tomateak edo sagarrak- euren polinizazioari esker da"

(ALBERT NIETSNIE,
ZIENTZIALARIA)

"Krisiaren aurretik gertatu zena berriro errepikatzeak arriskua dugu. Gipuzkoako ingurune industrialarekin, zelan izan daiteke Unibertsitate publikoan ingeniaritzako 13 titulazioko plazak ez betetzea eta industriarekin lotutako zikloetako LHko %70 plaza hutsik geratzea? Gero hor lana ziurtatuta dagoenean!"

(PELLO GIBELALDE,
ADEGIKO PRESIDENTEA)

"Behin batean Alberto Vidarteri, gaur egungo Aspeko administratzailea den Fernandez aitari, galdetu ziotenean Titin partiduko irabazten zituen 3.000 euro gehiegi ez ete ziren, harek garestia izan arren errentagarria zela erantzun zieten: 'Besteek gutxiago kobratzen dute, baina haien neska-laguna ere ez da joaten eurak ikustera'"

(JON TRUEBA,
KIROL KAZETARIA)

"Gaur egun 'ustezko' ezkerrek markatzen dio bidea 'ustezko' eskumari'. Gero eta alde ideologiko gutxiago dago alderdi politikoan artean, guztiek onartu baitute erlatibismoa, neokapitalismoa eta genero ideologia. Oraingo pentsamendu zuzenaren ezaugarriak dira teorikoki marxista izatea, praktikoki liberala eta psikologikoki freudianoa"

(JOSE IGNACIO MUNILLA,
DONOSTIAKO APEZPIKUA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

KARRASTARRUA.- Zozo mota bat. "Karrastarruanekuak baziran Eibarren".

KARRIATZAILE.- Garraiolari. "Oin dirua sopra daka, baia gaztetan karriatzaile ibilli zan furgoneta ziztrin batekin". Zentzu figuratuan, etxerako eruatea gustatzen zaiona. Gaztelerazko 'gorrón'. "Txindurrixan antzera, dana etxerako karriatzaillia".

eskutitzak

GUARDIA ZIBILLA ALDE EIBARTIK, ALDE EUSKAL HERRITIK

Jakiñekua da Guardia Zibillaren kuartela desagertuko balitza Eibarrek esparru handi bat irabaziko leukela beste zeregin batzuetan erabiltzeko. Ez da errezoit txikixa Eibartik jua daittezela eskatzeko.

Baiña kuartela itxia ez litzake nahikua izango. Euskal Herri osotik bota bihar dittugu, behinguagaittik, euren presentziaren kontra dittugun argudio nagusiñak ez diralako urbanistikua, politikua baiña. Ez dabe herri hau maitte, ez gaittuzte iñoiz aittu eta euren jarrera beti izan da indar armatu kolonizatzailliena. Hamarna urtetan sortu daben

sufrimendua ikaragarria da. Ereindako gorrotuaren parekua. Guardia Zibillak, polizixa espainiarrak eta Borboien ejerzi-tuak ez dake lekurik gurian. Horregaittik "Que se vayan" exitu genduan hainbeste urtetan. Oin "Alde hemendik!" diñogu, errezoiak sobre dittugulako.

Ez dogu uste urrixaren 12xan Espainiako herriak ezer ospatze dakanik. Eta Latinoamerikak, zer esanik ez. Eta guretako, arrotzak diran indar armauak, txakurrak, ospa egin bihar dabela gogoratzeko egun aproposa da. Gora Euskal Errepublikia!

EIBARKO SORTU

FRACKING EZ TALDEAK ESCRIBANO JAUNARI

1) San Juanetan, berdin zitzaigun zein egunetan, sinadurak biltzeko mahaia jartzeko baimena eskatu genuen; ez zitzaigun eman. 2) Hori ikusita, Arrate eguneko eskatu genuen; ez zitzaigun eman. Arrazoa: lekurik ez zegoela... 3) Ez daukagu zer ikusirik zuk aipatzen duzun pankartarekin. 4) Nahi dugun sinadurak biltzeko

mahaia jartzeko baimena eskatu eta gustura emango diguzula diozu. Berandu, orde. Jakin beharko zenuke irailaren 13an amaitu zela Legebiltzarrean sinadurak sar-tzeko epea.

Guk geure aldetik bukatutzat ematen dugu eztabaida.

MARITXU GOIKORTZEA ETA ARANTZA PALACIO

HI ZE KLASETAKO ALKATEA HAIZ?

Jexus Etxeberria naiz, Txarakua inguruko zelaiak zaindu eta txukun mantentzen dituen. Berez lurak baliaezin batenak dira, baina nik mantentzen ditut garbi. Hektarea bat inguruko lurra da, bertan dauzkat nire 16 ardiak eta, garbi edukitzeaz gain, uraren kanalak eta bertan dagoen iturritoxa ere garbitzen dut. Goian dagoen baserri bat ere zaintzen dut, itxita egoten delako eta lapurrak behin baino gehiagotan etorri izan direlako. Ezer txarrik ez, nire ustetan.

Ba udalekoek ez dute berdin pentsatuko, ni izorratzen saiatzen dihardute-eta behin eta berriz. Ardiak gordetzen ditudan bi txabolak botatzen saiatu ziren, baina azkenean udaleko aholkulariak neri eman zidan arrazoa eta ez zituz-

ten bota. Kontu horrekin, jabeari 1.384ko eta neri 900 euroko multak ere jarri zizkiguten. Nik zaintzen ditudan lurretara euren txakurrak sartu eta arkumeak hiltzen dizkidaten txakurzaleen iritziak nirek baino gehiago balio dute. Hori gutxi ez eta Guardia Zibilaria abisatu zioten, neri eskopeta kentzeko, eta kotxeko karneta ere kendu nahi izan didate.

Egoera horren aurrean, alkateak ez nau hartu ere egin nahi. Euren gezur batek nire hamar egik baino gehiago balio duela dirudi. Baliaezin bati eta berari laguntzen ari denari dirua lapurtu eta baserriarrei trabak jartzea al da zure asmoa, De los Toyos jauna? Baina, hi ze klasetako alkatea haiz?

JEXUS ETXEBERRIA



Euskara Elkarte

ARGITARATZAILERA: ...eta kितto! Euskara Elkarte. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
TELEFONOAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.
Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /
publizitatea@etakitto.com **Elkartaren E-MAILak:** elkarte@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com
ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Maider Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez,
Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILERA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.
ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDUA:** Juan Andres Argoitia eta Maider Aranberri.
PUBUZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnoa:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Eibar Triatloi Taldea
BANAKETA-ARDUADUNA: Ainhua Luz. **TIRADA:** 8.050 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).
COPYRIGHT-A: ...eta kितto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. **ISSN:** 1132 - 1679
("...eta kितto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

Eibar Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskal Jaurlaritzako Kultur Sailak diruz lagundutako aldizkaria

...eta kitto!-ren gabonetako otarra

Eguaztenian aurkeztu eben ...eta kitto! Euskara Elkartek gabonetan zozketatuko daben otarra. Aurkezpena El Corte Ingles-ian egiñ eben, abenduaren 17xan zozketatuko dan 2.000 euro balixo daben otarra berak babesten dabelako. Otarrak izango dittuan produktu guztien zerrendia zihazteke dago, baiña iazko moduan kalidade handiko produktuekin osatuta egongo da la aurreratu dabe. Bestiak beste 42 pulgadako telebista, turroiak, urdaiazpikua, gaztaia, txorizua, ardaauk, xanpana, rona... izango dittu. Zozketarako tiketak urrixaren 18xan hasiko dira saltzen, euro batian, ohiko denda, taberna eta establezimenduetan, baita ...eta kitto!-ren egoitzan eta El Corte Ingles-ian be. Horrez

gaiñ, asteburuero kalera urtengo dabe, Toribio Etxebarriako El Corte Ingles inguruan txartelak saltzera eta aurtan, gaiñera, auzuetan be ibiliko dira saltzen.

Maidar Aranberri ...eta kitto!-ko idazkarixak azaldutakuari jarraituta, "iaz 8.500 boleto saldu genduazan eta benetan eskerterezkuak dira eibartarrendandik jaso genduazan babesa eta laguntza. Horri esker lortu genduan gure proiektu guztieri eustia, baiña oindiok be egoeria ez da guk nahiko genduken bezain ona eta, horregaittik, atzera be babesa eskatu nahi detsagu jendiari". Euskara Elkarteko bazkideri be dei egiten detse, txartelak saltzera animatzeko. El Corte Ingles-aren izecian berba egin eban Joana Fernandez,



Joana Fernandez eta Maidar Aranberri haraño aurrezpenian. SILBIA HERNANDEZ

bestalde, pozik azaldu zan alkarlanarengaittik eta "herrixan euskeriaren alde egiten diran ekintzeri" laguntzeko euren konpromisua berretsi eban.



Aurreko asteke eguenian kalejira jendetsua egin zan Eibarren, LOMCERen kontra. SILBIA HERNANDEZ

LOMCEri Ez kalejirak

Bixar Gasteizen, Donostian, Bilbon eta Iruñean kalejira itxurako manifestaziñuak egingo dittue "Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki. Lomce-ri ez! Inposaketei ez!" goiburuari jarraituta eta Eibarko LOMCE Ez taldiak jende guztia Donostia-
ra juatera animau nahi dau. Bixarko protestatarako girotzen juateko, aurreko asteke eguenian anbulatorixuan hasi eta Untzagaraiño kalejira jendetsua egin zan, soiñujolien erritmora Lomceri ezetza adierazteko. Taldeko ordezkariak azaldu deskuenari jarraituta, "jendia


Donostiara juatia proposatu nahi detsagu, holan Eibarrek, LOMCERik nahi ez daben herri moduan martxan parte hartu, aldarrikatu, manifestatu, dantzaz egin eta abestu deitan. Horretarako 17.00ak aldera Bretxa aldamenian batuko gara, danak alkarrekin juan ahal izateko". Horrekin batera, Ego-Gaiñetik Donostiarako autobusak (14.30, 15.30, 16.30...) eta Ardantzatik urtetzen daben trenak 14.12, 15.12 (Amarara 16.38etan aillegauta) eta 16.12 ixa orduero daguazela gogoratu dabe.

EAJ kezkatuta San Andres pasialekuarekin

Atzo prentsaurrekuan azaldu eben, EAJ-PNVko udal taldiak moziñua erregistrau dau udaletxian, "udalbatzak hitzarmena siñatu eta udal gobernuak San Andres pasialekuko eraikiñen inguruan 2014ko martxuaren 28xan hartutako konpromisua bete deitan".

Eva Juez taldeko bozeramailiak azaldutakuari jarraituta, "udal gobernuak 2010eko urriaren 22xan San Andres pasialekuko 4. zenbakixari hondamendi egoeria aitortu zetsan eta 2011ko martxuaren 24an bizilaguneri eraikiña eraisteko baimena emon zetsen. Halanda be, eraisketia hainbatetan atzeratu da, 5. zenbakiko erai-

kiñari hondamendi egoeria geruago, 2012ko martxuaren 2xan aitortu zetselako eta eraisteko baimena, barriz, 2013ko apirilaren 5era arte ez eban jaso. Baiña urtiak aurrera doiaz eta eraikiñen egoeria gero eta okerragua da. Gaiñera lau etxetan oindiok jendia bizi da, horrek dakarren arriskuarekin". Juezek salatu dabenez, "udalak oin dala 6 hillebete emon zetsen bizilaguneri etxiak hustu eta eraisketarekin hasteko hillebeteke epia eta, eskakizuna bete ezian, udalak modu subsidiari-xuan eta jabien kargura ekingo zetsen hustuketa eta eraisketa biharrereri, baiña udal gobernuak ez dau ezer egiñ".



Paziente Bizia programa

Osakidetzak Paziente Bizia izeneko programia abiarazi dau, "nork bere burua hobeto zaintzen ikasteko". Horretarako, "gaixotasun kronikuak dituenari edo horrelako gaixoko bat zaintziaz arduratzen diranari gaixotasun horri buruzko informaziñua emon nahi jakue eta, horrekin batera, osasun-egoeria hobetzeko jarraitu biharreko ohiturak eta jokabidiak azaldu".

Programia batez be gaixotasun kronikuak eta 2 motako diabetesa daken paziente eta zaintzailliendako da eta programaren barruan antolatu dittuen ikastaruak urrian eta azaruan emongo dittue Eibar, Elgoibar, Ermua, Deba eta Sorluzen. Ikastaruak sei astian emongo dira, astian behiñ 2'5 orduko saia eskinduta. Informaziño gehixago nahi dabenak pacienteactivo@osakidetza.net helbidera idatzi edo 943006551 telefonora deittu leike.



Autobus zerbitzua ezagutzeko saia

Herritarrekin Martxan izenburuari jarraituta, Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzua hobetzeko prozesuari ekin zetsan Gipuzkoako 56 herrittan, billera irekixak eta bestelakuak herrittarren proposamenak jasotzeko baliatuta. Epe diferentietan bereiztutako prozesuaren barruan, 2014ko martxuan eta apirillian herrittarreri aurreproiektua azaldu eta horren gaiñeko eritzixak jaso zittuen eta oiñ atzera be herrikeri herri dabiltza, batzar irekixak deittuta 2015ian martxan ipiñiko diran zerbitzuak zeintzuk diran ezagutzera emoteko asmuarekin. Eibarren datorren asteko egueñian, hillaren 16xan egingo dabe billeria, 18.30xetan udaletxian.



autuan

1959-AN JAIXOTAKUAK

Urrixaren 25ian egingo dabe bat aurten 55 urte betetzen dituenak, Ixuan alkarrekin bazkaltzeko. Egunari 12.00xetan ekingo detse, Untzagan. Juan nahi dabenak 70 euro sartu biharreko ditue Ibarkurutzeko Sabadell bankuan (IBAN: ES52 0081 4362 6600 0111 8216), izena eta abizen bi zihetzuta. Azken eguna urrixaren 15a izango da. Argibide gehixagorako nacidos1959@gmx.com helbidera idatzi.



TOPA-EGUNA DERION

Bixar ospatuko da TopaEguna Derion. Programia 10.30xetan hasiko da "Berbak erein, ametsak erein" izeneko ekitaldixarekin eta hortik aurrera egun osorako jarduerak preparau ditue: esperientzien trukegunea, umiendako taillarrak, musikia, dantzak, kontzertuak... Informaziño guztia topagunea.eus helbidian topauko dozue.



esan izan gozan

nafarroa oinez 14

AUTOBUSA

Ego-Gainetik

Irteera:
08.30etan



Buelta:
18.30etan

15 euro

Nafarroa Oinez ZANGOZAN

urriaren 19an

J.A. MOGEL-EKO GURASOEN ELKARTEA ...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA



Funeraria·Ehortzetxe

Mugica

EIBAR



Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

ELGOIBAR



Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)



Bulegoa Eibarko erdialdean

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 20 19 51 | www.funeuskadi.com

Euskadiko Lehen Ehortze Taldea



asteko
200.000
datua

euroko aurrekontua eukiko dau Errealgo kultura ekipamenduaren adjudikaziño proiektuaren lizitaziñuak. 3 hillebetian egin biharko dabe proiektua eta epai-mahaixak preziaua (60 puntu) eta proposamen teknikuak (40 puntu) hartuko dituu kontuan.

Herri-bazkari solidarixuandako txartelak

Datorren asteko zapatuan, urrixaren 18xan Alboan, Egoaizia eta Aldatzen-en eskutik Untzagan "Jana ez da txantxa" goiburuari jarraituta egingo dan herri bazkari solidarixuandako txartelen salmentarekin segitzen dabela gogorazi dabe antolatzailliak: "Bazkarixa 14.00etan hasiko da Untzagan eta 400 bat lagun batzia daukagu aurreikusitta, bidezko merkataritzako osagaixak erabillitta sukaldatuko daben menua dastatzeko asmuarekin".

Egunerako preparau daben programiari jarraituta, 12.00xetan umiendako sukaldaritz taillarra emongo dau Ramon Roteta sukaldari ezagunak. "No es pais para sosos" EITB-ko saioko aurkezliak, taillarra gidatu ez eze, bazkarixa be berak prestauko dau.

Tiketak 10 euro balixo dau (7 euro ume, jubi-



Ramon Roteta sukaldari ezagunak (eskuman argazkixan) jardungo dau bazkarixa prestatzen.

lau eta langabetuendako) eta Kultu, Koskor eta Guridi tabernetan, Villalban, Mujika harategixan eta Arregui Dominguez arraindegixan erosi lei-kez eta batzen daben diru guztia Perun egitten diharduen garapen proiektuari laguntzeko erabiliko dabe.

San Miguel jaixak Agiñagan

Aurreko asteburuan, zapatuan eta domekan ospatu zittuen San Miguel jaixak Agiñaga auzokuak. Zapatu arratsaldian jokatu zan briska txapelketiari arrakasta haundixa euki eban, behintzat pare-hartzaille kopuruari begira eta horrekin batera umiak primeran pasau eban jai batzordekuak eurendako preparau zittuen jokuetan parte hartzen eta txokolatia jaten. Ixuan egindako afarixarekin amaittu eban eguna eta domekan, barriz, meziarekin, Gorriti eta bere animalixekin eta paella janarekin bete eban goiza, jaixak datorren urtera arte agurtuta.



35 bat postu ipiñi zeben Urkizun. LEIRE ITURBE

Agur Aste Ekologikuari

Parte-hartze haundixa euki eban aurreko zapatuan Urkizun egindako Debabarreneko III. Azoka ekologikuak. Goiz guztian parkian zabalik egon ziran 35 bat postuetan gure inguruko basarrietatik ekarritako produktuak erosteko aukeria egon zan: ardi, ahuntz eta behi gaztaia, okelia, barazkixak, arrautzak, ogixa eta pastelak, ez-tixa, marmeladak, sagardaua, sagar zukua, oli-xua... denetarik euki eban salgai Debemenek, Biolurrek eta udalak antolatutako azokan. Eta arratsaldian hainbat produktuekin dastaketa egiñ eban horretan parte hartzeko izena emon ebanak. Aste ekologikua bixar agurtuko dabe, 10.00etatik aurrera Eibarko Sosola basarrira egingo dan bisita gidatuarekin.

Eibar-Real Madril partidurako sarrerak

Maria Hurtado Vesgak eruan dittu azaruaren 22xan Ipuruan jokatu dan Eibar-Real Madril partidua ikustera juateko sarrerak, zapatuan #SagardoEgunean ...eta kitto! Euskara Elkarteak egindako zozketan saritutako 406 zenbakixa berak erosi eban eta. Martitzen arratsaldian etorri jakun bulegora sarixa emon detsan errifarekin argazkixa egittera. Zorionak!





Asteleheneko bere hitzaldiak zabaldu ditu udaleko Inmigratio alorrak eta Mugak-Gipuzkoako SOS Arrazakeriak-ek antolatutako "Aurreiritzi eta estereotipoak desagiten" II. Jardunaldiak. Datorren martitzenean Pepe Oleaga EHU-ko soziologoak "Inmigratioa: estereotipotik xenofobiara" hitzaldia emango du eta hilaren 22an SOS Arrazakeriako Agustin Unzurrunzagak "Aurreiritziak, baztertzea, arrazakeria eta muturreko eskuinak" izenburukoa (biak 18.30etan, Portalean). Eta hilaren 29an mahai-ingurua hartuko du udaletxeko patioak. Horrekin batera, "Zurumurruek desagiten" erakusketa ikus daiteke Untzagako jubilatutako etxean, astegunetan 19.15etatik 21.15etara eta asteburuetan 12.00etatik 14.00etara.

GORKA ERRASTI, udaleko inmigratio teknikaria:

"Etorkin gehienak, geure moduan, EUREN LANETIK BIZI DIRA"

- Zein da zuk egiten duzun beharra?

Udalaren Inmigratio alorra 2004an sortu zen eta 2008az goerotik nik dihardut honetan beharrean. Nire zeregin nagusia etorkinen integratioa lantzea da, horretara bideratutako programa eta bestelakoekin. Hemen ez dugu inolako diru-laguntzarik bideratzen. Astean egun bitan hitzordua eskatu duen jendea hartzen dut bulegoan, lan baimenen zein administratioari lotutako beste tramiteen inguruko zalantzak argitzen laguntzeko, horrelakoen gaineko aholkularitza eskaintzen dugu.

- Eta zeintzuk dira zuregana jotzen dutenen kezka nagusiak?

Batez ere gizarte-sustraitzeak, familia berriz elkartzeak, egoitza eta lan baimeak berritzeak, osasun txartelak eta nazionalitateak sortzen dute kezka gehien, horien inguruko kontsultak jasotzen ditugu batez ere.

- Eta integratioa lortzeko asmoari jarraituta, nolakoak egiten dituzue?

Ba, adibidez, oso martxa ona daraman Eibarren Bizi programa daukagu. Hilero 10-15 lagunek osatutako taldeak batu eta sei saiotan Eibarko gizartearen integratzeko klabeak diren gaien inguruko informazioa zuzenean jasotzen dute. Eta oso harrera ona izaten ari den Berriketan programa ere hor dago: bertokoak eta etorkinak taldeka ba-

tuta, gazteleraz edo euskeraz berba egiten trebatzen diren bitartean elkarren arteko ezagutza ere lantzen joaten dira. Europako batzordeak inmigranteen integratioaren aldeko programa egokitzen jo zuen eta, egia esateko, horrelako errekonozimenduak ez dira oso sarritan jasotzen.

- Jardunaldietan aparteko garrantzia ematen diezue zurumurruei. Zergatik?

Eibar, Gipuzkoako beste udalerririk ez duen bitartean, inmigratioaren inguruko estereotipoekin amaitu nahi duen Zurumurruek sarean dago eta, horren harira, jendeak gehien erabiltzen dituen zurumurruek inguruko informazioa hedatzeko materiala eman da argitarara. Untzagako erakusketan ere hedatuen dauden hamar zurumurruek inguruko informazioarekin osatutako panelak ipini dira ikusgai.

ETORKIN KOPURUA Eibaren (2014ko urtarrila)

Biztanleria: 27.513
Atzeritarrak: 1.902
Portzentaia (Eibar): %6'91
Portzentaia (EAE): %6'40
Portzentaia (Estatua): %10'70

JATORRIA (2014ko iraila)

Maroko (670), Pakistan (121), Portugal (89), Senegal (88), Dominikar Errep. (84), Bolivia (82)

- Eta zelakoak dira zurumurruei horiek? Zer diote?

Lana kentzen digutela, delikuentzia gehitzen dutela, laguntza ofizialen kontura bizi direla... Benetan oinarririk ez dauzkaten gauzak esaten dira etenbarik, eta horiek guztiak gezurra direla erakusten duten datuak emanda horrelakoak ixilarazi nahi ditugu. Etorkinez berba egitean, beste arlo batzutan onartezinak liratekeen astakeriak lasai asko esaten dira eta horrekin amaitu beharra dago.

- Krisiak kalte handia egin die integratio, elkarbizitza eta horrelakoei?

Zalantza barik, bai. Guk egunero ikusten ditugu horren adibideak, pentsa Gizarte-kintzako hormak errespetua eskatzen duten panelez bete behar izan ditugula! Denetarik entzuten da eta denetarik esaten digute. Jende askok kontrakoa pentsatu arren, etorkin gehienak, gure moduan, euren lanetik bizi dira. Eta diru-laguntzen kronifikazioa askoz altuagoa da hemengoaren artean kanpotik etorri direnen artean baino. Laguntzen erabilera oso ezberdina da: etorkinek hasieran jotzen dute laguntza bila, euren kabuz aurrera egiteko gauza izan arte, baina hemengoek, ostera, azkenetan daudenean eskatzen dute laguntza eta, beraz, asko zailagoa egiten zaie hortik irtetzea.

Hillabete honetako 17xan pobreziaren kontrako naziñoarteko eguna ospatuko da. Munduko aberastasuna txarto banatuta daguan, egun horrek hausnartzeko aukeria eskintzen desku behintzat. Baiña krisi sasoi honetan gero eta latzago agertzen jaku pobreziaren gordiña: gure artian be, bost lagunetik batek pobre izateko arriskua daka. Munduan be hirurehun millioi lagun bizi dira egunerokua eurua baiño gitxiagorekin egitten: hori esaten dau estadistikak. Gertuago, Hego Euskal Herrixan, populaziñuaren ixa %20 pobrezia eta bazterketa sozialaren atarixan bizi da; gehixago oindiokan, mugatik behera bizi diranen kopurua hazten doia urtetik urtera, hori aberastasanaren konzentraziñua gora egitten daben bittartian. Zero Pobrezia plataformak salatu dabenez, hamen biztanlien %1 pasatxoren esku dago produktu gordiñaren ixa erdixa. Atera geinken ondorixua? Aberastasanaren banaketa okerrak dakarrela pobrezia. Urriaren 17xa aprobeixauko dabe hogeittik gora gobernuz kanpoko erakunde, gizarte alkarte eta sindikatu horren kontra egitteko.



Aurreko urtietan be egin dira ekitaldixak Pobreziaren Egunaren bueltan. SILBIA H.

Pobrezia maila bajatu eziñik

Eibarren be egoeriak ez dau onera egiñ azken aldixan eta ez Udaleko Gizartekintza saillian, ezta Caritaseko buleguan, ez dittue nabarritu politikuen ahotan entzuten diran "kimu berdien" aztarnarik, urterik urte gero eta jende gehixago artatu bihar izaten dabe-eta. Badago zeri aurre egin behar!

Jaione Azkue Gizartekintzako arduradunak diñuan, "azken urtian 2.685 atenziño egin do-

guz oiñarrizko gizarte zerbitzuetan; horri gehitzen badetsaguz bardinttasuna, inmigraziño eta famelixa eta drogomenpekotasunaren arluetan eskindutakuak, kopurua 3.504raiño heltzen da". Oin dala hiru urtetik hona Elikadura Bankuarekin lanian diharduela diñosku, "eta, gurekin batera, Gurutze Gorrikuak eta Caritasekuak". Bigarren urte osuan "3.377 pertsonak jaso zittuzten lotiak Bankutik". Gure herrixan lan horretan llasten, Proega, Egoaizia eta Compartir alkartiak dittue lagun. Azkuek nabarmentzen dabenez, gero eta jende gehixago dator guregana, "Udalak be dirua ipintzeraiño, batez be etxebizitza arazuak konpontzeko: alokairuari edo mantenimenduari aurre egitteko".

Ingresuak Garantizatzeo Babeserako Sistemari jarraituta, hiru laguntza mota jasotzen dittue pobrezia egoereri aurre egin bihar detsenak: bi urtetik behin barritzen dan RGI (Ingresuen Garantiarako Errentia), Lanbideren bittartez; AES (Gi-

zarte Larrialdietarako Dirulaguntza), Eusko Jaurlaritzaren bittartez, "azkenian Udalak dirua jarri bihar badau be"; eta AGI (Ingresuak Garantizatzeo Laguntza), Diputaziñotik datorrena, "baiña guk kudeatzen doguna", Jaioneren esanetan.

Aurrekua "Interbentziño Plan batekin" doia lotuta, egoera bakotxa konpontzera bideratuta. Gizartekintzan orientau egitten dabe eta konbenixua adosten pertsona bakotxarekin. Langa-bezixaren eragiñak gizartekintzara bideratzen dau jendia eta horrek beste arlo batzuetan be ondorixuak dakar: "Baitta pertsona nagusixen, menpekotasuna daken edo ezinduak diranen artian", sistema normalizatuari arazuak gehittuta. Horregaittik, "biharra aurkittuta, gizarteartzia batzuk errazago daken moduan, badira beste batzuk baliabide murriztuaguak dakenak".

Hamenguak gehixago

Askok pentsatzen dabenenen kontra, bertokuok gara nagusi Ingresuak Garantizatzeo Siste-



Jaione Azkue, Eibarko udal Gizartekintzako arduraduna. SILBIA H.

man laguntza eskatzen: *"Datu orokorrak hori esaten dabe: Eibarren %61,5 dira hamenguak; eta, Gipuzkuara zabaltzen bagara, bertokuok %74ra iristen gara"*. Diru-laguntza ebazpena gero eta azkarrago emoten dala diño Azkuek. Eta, hori bai, aittatzekua da hamengo instituziñuak *"ez dabela murrizketen bitetik jo eta jendiak bihar dittuan zerbitzuak ez dirala gitxitu. Kontrakua, egoeraren aurrian, diru-laguntzak be gero eta gehixago dira. Udalak aurten be dirua ipiñi biharko dau, kanpotik datozen 300.000 eurotik aparte"*. Gizartekintza departamentua, bestalde, hamalau laguneko lan-taldiak osatzen dau: lau laguntzaille, bost gizarte-lagille, bardintasun teknikarixa,

immigraziñokua, etxerik-etxeko arduraduna, famelixa eta adin txikikuen teknikarixa eta Azkue bera, *"guria dan pertsonala eta azpikontratatuekin batera"*.

Caritas be behartsuei laguntzen

Leire Gomezek hainbat urte-tan gure herrixan Caritasen arduria izan zeban Arrate Garmendiaren tokixa hartu eban 2012xan eta bera da eskualdeko arduraduna, *"Soraluze, Egoibar, Mendaro, Deba eta Mutrikuko boluntarixuen lana koordinatzen"* dabena. Azken urtio-tako billakaeria Eibarko Caritasen buleguan honakua da: *"2011n 280 famelixa artatu genduaz, laguntzak 131.000 eurokuak ziran bittartian; 2012xan, 311 unidate familiarrak etorri ziran gurera eta 159.000 euro banatu genduaz; 2013an, bestalde, famelixen kopurua 450erañño iritsi zan, diru-kopurua 174.000 eurora helduta"*, diosku Gomezek. Hiru urtetan, beraz, laguntza emotiak %60 igo diran moduan, laguntza ekonomikuak %22,5 egin dabe gora.

Eibarko Caritasak honako laguntzak eskintzen dittu: etxebizitza (gasa, argixa, ura edo hipotekia ezin ordaintzia, errenta zorrak eta kaleratziak); San An-

dres parrokiak lagatako etxia (egoera larrixan dagozen famelixak hartzen dira denboraldi baterako); arropategixa (jantzitegixa jarri da martxan, boluntariuak arduratzen dira eta doaneko arropia eta oiñetakuak dagoz eskuragarri); elikadura eta haurren fardelak eta esnia; enplegua, orientaziñua eta formaziñua; osasun gastuak; eta, hezkuntza arluan, liburuak eta eskola materixala.


Iazko mobimendu ekonomikuari dagokixonez, iaz 81.000 euro bildu zeban Eibarren: *"Sanjuanetako eta Gabonetako kanpaiñetan 23.000 bakotxian, bazkidien kuotekin 12.000 eta donatibuetan beste 23.000"*, diño Leirek. Bestalde, 167.000 euro jaso dabe laguntza eske juan diranak: 161.000 famelixeri emon jakue, 2.000 ibiltari edo transeuntieri, eta 4.000 farmazia gastuetarako. Defizita, ikusten danez, ia 86.000 eurokua da, *"Gipuzkuako Caritasak bere gain hartzen dabena"*.

Dana dala, Gomezek diñuan, *"askotan hona datozenak*



Leire Gomez, gure eskualdeko Caritaseko arduraduna. SILBIA H.

gehixago bihar dabe orientaziñua dirua baiño". Eta badaka biharra zaiñ: *"Hillaren 28ra arte beteta dakat hitzorduetako zerrrendia"*. Caritasera jotzen dabenen artian kanpotarrak dira nagusi: *"450 famelixetatik, esaterako, 400. Hamenguok, barriz, lotsatziagatik gitxiago etortzen dira"*. Laguntza eske bakarrik ez, badira emoteko prest be dagozenak: *"Nepaleko emakume batek, esaterako, klasiak eskindu detsaz 13 laguneko herrikidien taldiari, gazteleraz jabetzeko"*.



J. Etxeberria, 7



ETXERAKO eta
OPARITZEKO
ARTIKULUAK

Tel. 673 70 66 11

Asier Serranoren 3 diskoak



"Ez Esan Inori"



"Gerrari bai"



"Hoteleko kantuar"

10 eurotan ...eta kitto-ko bulegoetan

Helbidea

URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

CENTRO MEDICO - OSASUNDEGIA

- 1) Kardiologia; 2) Zirugia; 3) Dermatologia;
- 4) Dietetika eta Nutrizioa; 5) Anlisi Klinikoak;
- 6) Ortodontzia; 7) Otorrinolaringologia;
- 8) Pediatria; 9) Psikiatria; 10) Neurologia;
- 11) Barne Medikuntza; 12) Radiologia;
- 13) Urologia; 14) Traumatologia;
- 15) Koloproktologia; 16) Erizaintza;
- 17) Zoru pelbikoaren errehabilitazioa;
- 18) Foto-depilazio Unitatea; 19) Ginekologia;
- 20) Lagundutako ugalketa (BERRIA)

50 urte sasoian sasoikuari moldatzen

San Andres ikastetxuan

Irailleko azken egunian, 30ian kolorez betetako ekitaldixan presentau eben Untzagan San Andres ikastetxeak eskolia sortu zala 50 urte betetzen dirala ospatzeko programaziñua. Ikastetxeko ordezkariak eta Miguel de los Toyos alkatiak konpainia ederra euki eben: urteurrenerako egin dittuen kamiseta laranja eta berdiak jantzitta zeroien ikasle mordua. Nagusixak ekitaldixen barri emon eta jarraixan, harmailletatik bajatu eta plazia beteta "Esquetan" abesti ezagunaren erritmora danak dantzari hasi ziran, egunerako bereziki preparau eben koreografixa ikusgarrixa danen aurrian erakutsita. Dantza horrekin ekin zetsen datozen hilliotan jarraipena eukiko daben 50. urteurreneko egitarauari.

Hurrengo ekitaldixa urrixaren 19xan egingo dabe: domeka horretan Arratera igoko dira han jaialdixa egitteko. Eta hola, ikasturte guztian hillero ekitaldi bereziren bat egingo dabela aurreratu desku: azaruan Kirol Astia; abenduan "Unibersidadia eskolan" eta Gabonetako jaialdixa; urtarrillian Aste Gastronomikua; urtarrilla-otsailla bittartian Ate Irekixak; apirillian "Kultu eskolan", erakusketia (baten batek argazkixak-eta badakaz eskolara eruan leikez edo sanandres50urte@gmail.com helbidera idatzi) eta bazkarixa; maiatzian Euskeriaren Astia; eta ekaiñian sanjuanak ospatuta agurtuko dittue 50. urteurreneko jarduerak.

Ikastetxia modu ofizialian 1965eko otsai-



Irailaren 30ian egindako dantzarekin ekin detse 50. urteurrena ospatzeko programari.

Ilaren 9xan sortu zan, "Agrupación Mixta de San Andres" izenarekin eta gaur egunian Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako ikasliak betetzen dittue eskolako gelak, urte bi eta 12 bittarteko 469 ikaslek.

Gaur egunian ikastetxeko zuzendarixa dan Gustavo Marfullek ixa bizitza guztia daroia eskolan: "Soldadutza amaittu barri, 1977xan hasi nintzan klasiak emoten. Orduan sasoian be ikasle mordua eguazela gogoratzen dot eta oin Sansaburun dagan parbularixua be guria zan, nahiz eta beste eraikin batian egon".

Liburu barik ikasten

Horrenbeste urtian eskoliak aldaketa haundixak izan dittu, baiña inportantienetakua hizkuntzari lotutakua izan dala diño zuzendarixak: "Hasieran dana gaztelera irakasten genduan, baiña 80. hamarkadan euskeria sartzen hasi giñan, dana euskeraz izan arte. Herrixan D eredua eskintzen hasi zan lehen eskola publikua geuria izan zan".

Hizkuntzarekin batera, erakusteko moduan izan dau kanbixorik haundiña: "Irakasliak lehenago betetzen eban rolak gaur egun betetzen dabenarekin zerrikusirik ez daka. Oin dala urte batzuk irakasliak dana zaxixan eta ikaslieri kontau egitten zetsen, baiña

Herrixan D eredua eskindu eban lehen eskola publikua izan zan

gaur egunian irakaskuntzaren oiñarrixa ikasketa bera da, umiak taldeko lanak eta bestelakuak eginda ikasten dabe. Ume bakotzak bere tokixa daka, iño ez da kanpua geratzen". Askori arrarua egingo jakon arren, San Andres eskolako ikasliak ez dabe ixa libururik erabiltzen: 3 urtekuen geletan hasi eta nagusixenen geletaraiño, klasiak guztiz dinamiko eta interaktibuak izateko aukeria ematen daben arbel digitalak ipiñi dittue.

Maria Luisa Alcalde irakasliak be bizitza erdixa pasau dau ikastetxian: ikaslia izan zan lehelengo, urte batzuk pasauta irakasle modura bueltau zan eta bere semiak be bertako ikasliak izan dira. Bere ikasle sasoian irakasliak tarima gaiñian egoten zira gogoratzen dau, "eta pupitriak eta erroperuak eguazen. Neskak eta mutillak alkarrekin ikasten genduan, baiña gimnasia egitteko bereiztu egitten ginttuen. Institutuan egon arte ez neban pentsatzen irakaslia izatia, baiña ilusiñuarekin bueltau nintzan txikixeri klasiak emoteko".

50. urteurrenaren harira sanandres50.blogspot.com bloga ipiñi dabe martxan eta horren bittartez emongo dabe egitten diran jardueren zein bestelakuen barri eta aurreko eguneko dantzaren bideua be ikusteko moduan dago.



“Made in Eibar” lehiaketa azken txanpan

Udalak deitutako “Made in Eibar” dokumental lehiaketa azken txanpan sartu da, lehiaketarako dokumentalak urriaren 31rako Pegoran entregatu beharko dira eta. Hamabi urtetik gorako lagunentzat bereziki zuzenduta dagoen lehiaketaren bitartez, “industria zertarako den erakutsi nahi da. Eibarko enpresek edo Eibar hiriarekin lotuta dauden produktuen garapena erakustea da helburu nagusia. Tailerren produkzio lana baloratu nahi da, prozesua, lana, metodoaren premia eta garrantzia azpimarkatuz”.

Horretarako, honako ezaugarriak dauzkan dokumentala aurkeztea eskatzen zaie parte-hartzaileei: gehieneko iraupena 20 minutukoa izango da eta euskeraz egin beharko dute; lanak ikus-entzunezko formatuetan aurkeztu beharko dira, DVD batean (AVI, MPEG, MP4 edo WMV formatoak onartuko dira bakarrik); enpresa partaideek aukeratuko dute eta eurekin berba egingo dute, besteak beste beharrezkoak izan daitezkeen baimen guztiak eskatzeko; aukeratzen diren enpresak Eibarren egon behar dira edo, bestela, Eibarrekin

lotura argia izan beharko dute; dokumentalean, partaideek aukeratutako enpresaren produktuaren prozesua jaso beharko dute (nola

Herriko industria eta bertoko produktuak ezagutzera emateko ikus-entzunezko lanak aurkeztu behar dira lehiaketara.

sortzen den, ikerketa eta garapenik duen, sorkuntzaren prozezu guztia produktua amaituta egon arte...); dokumentalaren narratzailea taldeko partaideren bat izango da; dokumentalean ezin izango da partaideen izen-abizenik azaldu; proposamenak originalak izan behar dira, inori plagiatu edo kendu gabe; beste lehiaketa batzuetan aurkeztutako proiektuak ezin dira hemen aurkeztu; eta parte-hartzaileek sortutako musikak erabiltzea edo, ezinezkoa bada, egile-eskubiderik gabekoak erabiltzea gomendatzen dute (egile-eskubideak dituen musika erabiliz gero, parte-hartzaileek bere gain hartu beharko dute egileak edo honen ordezkarik batek erantzunkizunak eskatu ezkerok).

Lehiaketako irabazleentzat hiru sari egongo dira: lehen saria eskuratzen duenari 1.500 euroko balioa duen informatika eta ikus-entzunezko materiala emango diote, bigarren saria lortzen duenari 1.000 euroko balioa eta hirugarrenari, berriz, 500 euroko balioa duen materiala. Lehiaketari buruzko argibideak Juan San Martin Liburutegian edo 943708437 telefono zenbakian eska daitezke edo, bestela, www.eibar.net helbidean kontsultatu.

Abiatu da Beldur Barik lehiaketa

Emakumeen berdintasunaren aldeko testuinguruan sortutako Beldur Barik Jarrera islatzeko lan lehiaketa martxan dago. Euskal Autonomia Erkidegoko 12 eta 26 urte arteko neska-mutilek izango dute parte hartzeko aukera, bi kategoriatan: 1. kategorian 12 eta 17 urte bitartekoak eta 2. kategorian, berriz, 18 eta 26 urte bitartekoak. Banaka edo taldeka har daitezke parte, ikastetxe gisa, ikasgela gisa edo elkarte gisa. Hori bai, pertsona eta talde bakoitzeko gehienek 3 proiektu aurkeztea onartuko dute. Antolatzailerik ezin izan bada, "proposamenak originalak



Aurreko edizioetan lez, proiektu guztiak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira, bideo-plataforma baterako esteka bat jarritz.

izan behar dira, hau da, inori plagiatu edo kendu gabekoak. Horrez gain, beste jaialdi edo lehiaketa batzuetan aurkeztutako proiektuak ezin dira hemen aurkeztu. Piezak euskaraz, gaztelaniaz, bietan, edo beste hizkuntza batean aurkeztu daitezke (azken kasu horretan, euskarazko edo gaztelaniazko azpitituluekin). Bestalde, proiektuek gehie-

nez 5 minutu iraungo dute, kreditu-tituluak barne eta musika erabiliz gero, egile-eskubiderik gabeko musikak erabiltzea gomendatzen dugu (hau da, copyleft lizentzia daukatena edo taldekideek sortutakoak)".

Beste edizioetan bezala, proiektu guztiak ikus-entzunezko formatuan aurkeztu behar dira, bideo-plataforma ba-

terako (Youtube edota Vimeo) esteka bat jarritz. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek www.beldurbarik.org webgunean dagoen formularioa osorik bete beharko dute eta, formularioa bete eta bidali ondoren, erantzun automatikoa jasoko dute, antolatzaileek jasotutako baiezatzeko. Lehiaketarako lanak jasotzeko epea azaroaren 12an amaituko da.

Kike Amonarriz tolosarrak hitzaldia eskainiko du datorren eguaztenean, 19.00etan hasita, ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urkizun dituen lokaletan. "XXI. mendeko euskaldunak: nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!" izenburu izango duen saioan, ohikoa duen baikortasuna erabiliko du euskararen gaur egungo egoera aztertzeko. Soziolinguista "denoi dagokigun" aldaketen aldekoa da, batez ere "belaunaldi bat joan eta beste ziklo baten aurrean gaudenean". Dena dela, Amonarrizek onartzen du euskararen ingurukoa ezin dela "botoi bat sakatuz" konpondu. Bidean asmatu beharra ikusten du.



KIKE AMONARRIZ, soziolinguista:

"Diskurtsoak eta praktikak, biak izan behar dira berriak euskeraren inguruan"

- Zer adierazi nahi duzu hitzaldiaren izenburuarekin? Nondik nora jotzeko asmoa duzu saioan?

Argi dagoela XX. mendea atzean laga genuela eta XXI.ean sartuta gaudela adierazi nahiko nuke. Azken hamarkadan sekulako aldaketak izan dira euskararen munduan ere, inoiz gertatu gabekoak; hori bai, batzuk positiboak izan diren moduan, badira beste batzuk hain aldeko jo ezin ditugunak. Une historikoan bizi gara: globalizazioa dela, krisi ekonomikoa, lanaren deslokalizazioa, komunikazio modu berriak Internet tarteko... Hori guztiori azaltzea nahiko nuke.

- Orain arte eman dituzunetan, zein jarra nabari duzu ikusleengan? Ezustekorik jaso duzu?

Programa bati jarraituz landu ditut hitzaldiok eta izan dira, bai, niretzat ezustekoak tarteko. Hizkuntzaren inguruan tonu baikorrean jardun behar dugula uste izan dut beti, errealitatea edozein izanda ere, modu alaian emaitza eta erantzun hobekak jaso ditzakegulakoan. Baita ezustekoak ere. Zergatik izan behar da hizkuntzaren ingurukoa hain iluna eta aspergarria? Tonuak ezustera eramango gaitzake, harrigarria izan daitekeen puntura. Munduko hizkuntza gutxituen artean normala izaten da ahultasunak nabaritzea, egon badaudelako. Baina konturatu gintezke ere ez gara uste genuen bezain txikiak.

- Zer egoeratan dago euskara? Geldialdian sartu da, beste norabide batean?

Asmatzen goaz bila gabiltzen irtenbide horretan?

Badugu hor ataltzua botila erdi-hutsa eta erdi-betearena, bi ikuspegiak egon baitaude jendearen artean. Hori adierazteko, zein motako jendeak hartzen duen jarrera bat eta zeintzuk bestea ikusi behar da, eta zergatik egiten duten aukeraketa hori. Metaforaz baliatzen gara irakurketa ezberdinak identifikatzeko. Egia esateko, argi dago euskarak aurrera egin duela, baina egoera prekarioan jarraitzen duela oraindik eta ahula dela, batez ere hainbat sektoreetan.

Horregatik, aurrera begirako ikuspegia emango dut: zerk ekarri gaituen honaino, euskal komunitateak bizirik eta nahiko indartsu egoteko zelako indarrak bildu dituen, dinamikoa eta ekintzailea izan den jendearekin...; hori, gainera, ez da askotan gertatzen. Hori asmatu behar dugu identifikatzen: gutxiengo konsziente baten indarra izan da transmititu dena, belaunaldietan jarraipena izan duena, elkarlanarekin, euskeraren aldeko jarrerarekin, hizkuntzaren erabilera dinamikoarekin eta apustu nagusitzat hartuta. Motibazioan piztutakoak irakaskuntzak ziurtatu du eta babes ofizialak bermatu.

- Diskurtso berriak behar da? Zure ikuspegi baikorra da ala askotan erakusten duzun umore horrek despistatu egiten gaitu?

Ez diskurtsoa bakarrik; praktika berriak ere behar dira. Beste sektore batzuk inplikatu eta garai berrietara egokituz. Ja-

rreka baikorrak ez dio errealitateari ihes egiten: kontrakoa, askoz emaitza hobekak lortzen dira modu baikorrean erantzunez haserre eta negarrez hasita baino. Iritsi garen lekura iristeko bide horretatik jo izan dugu, frankismoak berak irakurketa ezkorrek egiteko motiboak ematen baitzuen.

- Bidea erraztearren, zelan lortu erdaldun gehiago erakartzea euskerara? Zein bide proposatzen duzu?

Gai konplexua da Gehiengora iristea lortu beharko genuke, horretarako hurbilduz. Denbora askoan gutxi zuzendu zaizkie, gurasoek ere ez dute animo askorik jaso askotan eta hor muga bat izan da. Horregatik, lehenengo urratsa hurbilketa izango zen; eta, ondoren, euskararen premia sortzea. Horretara eramango gaituzten bideak aktibatu behar ditugu, jendeak zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta gehiago har baitezake aldeko jarrera.

- Euskara ikastetik erabiltzeraino eman beharreko pauso horretan, zertan egiten dugu kale? Zertan asmatu behar dugu?

Irakaskuntza munduan lehenengoko urteetatik bideratu behar ditugu neska-mutilak euskera erabiltzera. Bultzatze horretan, jakina, esparruak sortu behar dira eta komunikagarritasunaren balioaz jabetu: euskararen inguruan gehiegizko zuzentasuna baztertu eta samurtze aldera joko nuke. Baina faktore askok jokatzen dute hor eta ikuspegi holistikoa izatea beharrezkoa da. Ez da botoi bat sakatuta lortu daitekeen zezer.



argazkiak: LEIRE ITURBE

Demaseko giroa izen genuen pasa den larunbateko Sagardo egunean. Goizez zein arratsaldez, jende mordoia hurbildu zen Untzagara sagardo mota desberdinak dastatzera eta txorizo eta gazta pintxoak jatera. Mila esker Untzagara joan zineten guztioi, guztia antolatzen laguntza eskaini duzuen guztioi, Gorenak Sagardotegiei, Guridi eta Koskor tabernei eta Ondo Nai, Peña Txinbera eta Botellin elkarte gastronomikoei.

Mila esker







20 URTEZ BERTSO-PAPER LEHIAKETA ANTOLATZEN, 838 BAZKIDE

...eta kitto!
ko
bazkide izan nahi dut

...eta kitto! Euskara Elkarte
Urkizu 11, solairuartera. EIBAR. Tel.: 943 20 09 18
elkarte@etakitto.com

urteko kuota

- 16 urteik behera
5 euro
- Lanean dihardut
45 euro
- Langabea, ikaslea,
jubilatua, etxekoandrea
15 euro
- Borondatez, diru
gehiago eman nahi dut
..... **euro**

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____ Herria: _____
 Telefona: _____ e-maila: _____
 Lanbidea: _____ Jaiotze data: _____
 Kontu zenbakia (20 digito): _____

SAGARDO EGUNEKO Selfieak



Eskerrik asko! #SagardoEguna sare sozialetan bolo-bolo erabili zenuten zapatuan eta zuei esker Umap Euskaraz-en azken 24 orduetako joeren zerrendan hirugarrenak izatea lortu genuen. Selfie lehiaketarako oso argazki politak jaso ditugu, oraingoan ere portatu zarete! Jasotakoak begiratu eta gero, 13 sagardo botilak JAIONE BERRAONDOrri ematea erabaki du epai-mahaiak. Zorionak! Mila esker parte hartu duzuen guztiei!



Eibar Triatloi Taldea: Nekaezinen mende laurdenari jarraituz

Orain dela 29 urte eman zituzten lehenengo urratsak gure herriko triatloilariak. Fernando Bildosola eta Borja Zendoia animatu ziren bide hori jorratzera. "Hasieran, gainera, Pentatloi Modernoko Federazioaren barruan zegoen kirola, hipika eta halakoekin batera", diote gurera etorritako ordezkariak. Edu Oiarzunek, Iñigo Unanuek eta Xabi Arrietak eman digute urte guzti hauetako berri, taldearen bilakaerarekin batera.

AIPATUTAKO BI AITZINDARRIAK JOTAKO BIDETIK heldu zioten kirol modalitate honi beste batzuk eta, "bost lagun bildu eta notariara jo genuen arte", dio Edu Oiarzunek. "Estatutuak beste elkarte batetik kopiatu eta ekin genion bideari". Eibarkoa, gainera, lehenengoetakoa izan zen horretan, Ondarroako eta Tolosako klubekin batera.

Arrasateko JMA enpresa izan zuten lehen babesle eta mende laurden honetan beste bederatziz izan dituzte bidelagun: Orbea, Ciclos Iñigo, Turbina, Sisteco, Euki, Graficas Gamboa, Bista eder Klinika, Premier Bidaia eta gaur egungo Delteco.



Iñigo Unanue, Jon Etxabe eta Joseba Mikel Ortega Agote.

"Azken horrekin lau urterako hitzarmena dugu eta pozik gaude, eurek gurekin bezala".

"Talde irekia" osatzen dutela diote, "edozein guregana etorri eta laguntzeko prest gaude". Horren adibide da hainbat egunetan elkarrekin entrenatzeko geratzen direla. Gaur egun 50 bat lagun daude taldean, euretako lau emakumezkoak. Gainera, kadeteetatik hasita, multi-kiroletako programan ere sartuta daude, zapatuetan prestatzen jarduteko. "Julen Teran da taldeko gazteena, 15 urterekin; eta Alberto Agirre eta Alejandro Altuna izango dira helduenak, 55 urteren bueltan", dioskue Eibar Triatloi Taldeko ordezkariak.

Euskal Herritik kanpo ere lehiatzen dira, Espainiako hainbat probatan parte hartuz. Eta 2000. urtearen bueltan Hawaiko Ironmanean ere parte hartu zuten Iñigo Unanuek eta Ortega Agotek. *"Hura da triatloiko Meka eta han egotea esperientzia berezia da, zalantzarik gabe",* dio Iñigok.

Urte osorako egutegia

Kirol modalitate horretako egutegiak, gainera, ia urte osoa hartzen du. *"Neguko eta udako*



Eibar Triatloi Taldeak hainbat babesle izan ditu 25 urte hauetan. Ciclos Iñigo izan zen horietako bat.

triatloiak ditugu, alde batetik (batean igerian egiten den bitartean, bestean eskian dihardute), eta duatloia eta akuatloia ere hor daude". Emaizak ez dira nolana hikoak izan eta gure herriko taldeak badu maila. Horrela, Ane Ziaran (hemendik aurrera Iruñeko Saltokirekin lehiatuko duena) Espainiako txapelduna izan da 23 urtetik azpikoenen artean; horrez gain,



Ibizan jokaturako proban, Eibar Triatloi Taldea 3. postuan sailkatu zen Espainiako txapelketan. *"Eta neguko triatloian, Euskadiko txapeldunak izan gara, hor ere taldeka".* Emaizta horiei garrantzi handiagoa ematen diote Deltecoko kirolariak maila indibidualean lortutakoei baino; hala ere, ez dugu baztertuko Pello Osorok azken aldian lortutako maila (Euskadiko lehena eta Espainiako hirugarrena izan da), Edu Oiarzu-

nek beteranoetako bere mailan onena izan dela Espainiako txapelketan eta ezta Iñigo Unanuek lortutako 2. postua beteranoen BI mailan distantzia erdiko proban.

Lagunak gogoan

Taldearen helburua, hala ere, *"parte-hartzea besterik ez da. Gero, logikoa dena, bakoitzak bere buruari ipintzen dizkionak daude, baina beti ere bide horretatik enfokaturata".* Eibar Triatloi Taldeak herriko duatloia eta umeena antolatzen ditu urtero: *"Duatloiak 23. edizioa bete du dagoeneko eta baditira lau urte umeena egiten hasi ginela".* Urte hauetan taldekoak izanda gaur egun eurekin ez daudenak gogoratu nahi dituzte: *"Ibon Vega, Xabier Amesti, Edu Gorrotxategi eta Andoni Arza ondo gogoan ditugu, gure partaide izan genituelako".*

Biharkoa egun handia izango da denentzat, hasi goizeko 11.30etan, umeen duatloiarekin; jarraitu 12.30etan, herri-duatloiarekin; 13.00ean jarraitu txirindularien kriterium lasterketarekin eta, taldearen argazkia atera ondoren, Armeria Eskolan egingo duten bazkariarekin amaitzeko. Ondo pasa!

Errugbiko nesken taldeak domekan hasiko du denboraldia

Domeka eguerdian, 12.00etan, jokatuko du Euskal Ligako nesken taldeak denboraldiko lehen partidua Unben. Bost aurpegi berri ditu taldeak, ekipora bueltatzen den Ainara Letona tartean, eta 20 jokalarik osatuko dute; Ehari Ulazia beteranoa izango da kapitaina. Entrenatzailea ere berria izango da, baina ez ezezaguna taldearentzat: Igor Sendinok hainbat urtetan jokatu izan du Hierros Anetxen eta orain dela

hamar urte, nesken taldea osatzen hasi zenean, bera izan zen tartean, Letona eta Miren Arriolarekin batera.

Mutilen taldea galtzaile A Coruñan

Pello Urkidiren taldeak oraingoan itxura hobea eman zuen arren, 18-11 galdu zuen A Coruñako CRAT taldearekin, atsedenaldira 6-8 irabazten joan eta gero. Gaizkak gauzatu-tako zigor kolpe biak eta Urtzi-



ren entsegua ez ziren nahikoa izan partidua irabazteko; Urtzi,

gainera, kanporatu egin zuten txartel gorri zuzenarekin.

Hilaren 22ra arte eman daiteke izena Cuevas herri-lasterketan

Urriaren 25ean jokatuko den Asier Cuevas herri-lasterketaren bigarren edizioa gertatzen doan neurrian, antolatzaileek aurtengorako dituzten helburuak jakinarazi dizkigute: iazko partaidetza kopurua handitzea (250 korrikalaritik gora) eta emakumezkoen portzentaia %21etik gorakoa izatea. Iaz ere, portzentualki beste inon baino emakume gehiago izan zen gure herriko proban eta, diotenez, "orain arte izena eman dutenen

artean, %35,3 dira emakumezkoak". Interesatuak Klub Deportiboko bulegoetan eman dezakete izena, eguaztenetan (19.00-20.30), edo, bestela www.sailkapenak.com helbidean

Deporren bertan, eta urria amaitu arte, korrikalarien antzinako eta oraingo argazkiak daude ikusgai, tartean aurtengo edizioan "apalki bada ere" gogoratu nahi den Roberto Agirregomezkorta zenaren figurarekin.



Euskadiko hiru-txirlo txapelketa bihar abian

Barinagan dute hitzordua, 17.00etatik aurrera, lau jardunalditan banatuko den Euskadiko XXV. hiru-txirlo bolo txapelketa-konparte-hartzaileek. Markinako auzo horretako bolatokiak hartuko duen estreinako jardunaldiaren ondoren, Elgoibarko San Roken (hilaren 18an), Bolibarko Iruzubietan (hilaren 25ean) eta Elgoibarko San Miguelen (azaroaren 8an) izango du jarraipena txapelketak. Edozer gertatuta ere, Garmendipe izango da ordezkoko bolatokia.



Gaur pilota Astelenan

Lau partidu jokatuko dira gaur, 19.15etan hasiko den jaialdian: bi buruz-burukoak izango dira, beste bi binaka. Klub Deportiboko Azkargorta eta Arrasateko ordezkariaren arteko alebin mailako partiduarekin hasiko da jaialdia; jarraian, Albizurik Alegiako ordezkaria izango du aurkari infantiletan. Azken bi partiduak senior mailakoak izango dira: Agirresarobe-Narbaiza andoaindarren aurka eta Unamunzaga-Bengoetxea amezketarekin lehian.



FERMIN ETXALUZE OROZKO

2014-X-3an hil zen

"Zurekin bizitako uneak gurekin geldituko dira betirako. Ez zaitugu sekula ahaztuko"

ZURE FAMILIA



Urrezko hasiera Ipuruako gimnastena

Bai zapatuan eta baita domekan ere podiumaren gorenera igo zirelako kadete oinarri mailako taldeko ordezkariak Donostiako Izar Leku torneoan eta Gasteiz Hiriakoan. Elene Varela, Nahia Arguiz, Malen Txurruka, Teresa Miguel eta Elena Sudupek mazedekin jardun zuten euren ariketan, azaroan Castellonen jokatu



den Espainiako txapelketara eramango duten aurrekari gisa. Talde hori izango da estatuko txapelketara joango den Ipuruako bakarra; horregatik, klubak oinarritzko mailako beste bi talde osatu nahi ditu hurrengo denboraldirako. Asteburu honetan Gipuzkoako txapelketan izango da aipatutako kadete taldea.



Somos Eibar lider Pulporekin

Eibarko eta Zumaiako taldeak dira hiru partidua irabazi dituzten bakarrik eta puntu bakarreko alde ateratzen diete Santoña, Trapagaran eta Anaitasunari. Azken jardunaldian Somosekoak nagusi izan ziren Usurbil igo berriaren aurrean (36-27), golak taldeko jokalariz guztien artean banatuta. Aitor Oregi, Endika Goenaga eta Ander Anabitarte jubenilak ondo egokitu dira taldera eta beharrezkoa izango da guztien partehartzea bihar Elgoibarren eta hurrengo jardunaldietan (Ipuruan Anaitasunaren aurka eta Errenterian Ereintza jaitsi berriarekin) jokatu beharreko neurketetan. Fernandez taldea, gol gehien sartu duena izanda ere, badu zer hobetzerik defentsa lanean. **Haritza bigarren taldeak** ez zuen ondo hasi liga, Zarautzen zazpi golengatik galduta, astebete lehenago lagunartekoan erraz nagusitu zirenean; ezustekoa, beraz, eibarrantzat.



Nekane Muguruza onena estatu mailan

Kalamua Klubeko judokak zilarrezko domina irabazi zuen Irungo Artaleku kiroldegian jokaturako judoko Espainiako Super Kopan. Muguruzak Euskadiko beste ordezkariari irabazi zion lehenengo borrokan eta, jarraian, Andaluziako ordezkariari eta Frantziako bati irabazi ondoren, finalean galdu egin zuen Bordeleko teknifikazio zentroko kidearekin (**argazkian finalista biak Manu Agirrekin**). Emaiza horrekin, Nekane lehena da estatuko seniorren ranking-ean, oraindik juniorra bada ere.

Areto-foballeko Kopako partidua 14an

Concepto Egilek Zaragozako Sala 10 hartuko du martitzenean Olaizaga kiroldegian Erregearen Kopako final hamaseigarrenetan. Aurretik Iruñean jokaturako partiduan San Juan kaleratu eta gero (0-1 irabazi zuten elgoibartarrek) beste urrats bat egiteko asmoa dute elgoibartarrek iaz Kopako finalerdietara iritsi zen Aragoiko taldeari irabazita. Ligari dagokionez, Concepto Egile 4. postuan dago, Zierbena eta Santurtzi taldeengatik lau puntura.



Salvadora Atxa Gisasola

(URRIAREN 2AN HIL ZEN, 92 URTEREKIN)

“Eskerrik asko bizitzan erakutsi diguzun guztiagatik”

“MAITE ZAITUGU”
Zure Familia





MIREN NARBAIZA (Napoka Iria) "Gaurkoa berezia izaten ahalegindu gara"

Orain dela hamar urte sortu zen Napoka Iria, Ander Mujika eta Miren Narbaizaren eskutik eta gaur "Arnasten ikasteko berriz" estudioko lanik berriena etxean aurkeztuko dute, Coliseo antzokiak 20.30etatik aurrera hartuko duen emanaldian. Napokako kide biei laguntzeko, gainera, luxuzko gonbidatu bi izango dira eszenatokian: musika elektronikoan oso ezaguna den Aitor Etxebarría eta Norman taldeari ahotsa ipintzen dion Beñat Narbaiza.

- Nolakoa izango da gaurko kontzertua?

Batez ere gure disko berriena, orain dela urtebete inguru kaleratu genuen "Arnasten ikasteko berriz" lana ezagutzera emateko kontzertua izango da. Eibarren eta Coliseoan joko dugunez, zerbait berezia izatea nahi genuen eta, horregatik, Aitor Etxeberría (El Txef_A) eta Beñat Narbaiza gonbidatu ditugu, kontzertuaren bigarren zatian gurekin batera jo dezaten. Aitor Etxeberría gernikarra oso ezaguna da musika elektronikoaren munduan, besteak beste avant popo elektronikora gerturatzen diren kantengatik eta nazioartean oihartzun handia izan duen "We walked home together" izenburuko abestiengatik. Eta Norman eta Estigia taldeekin jarduten duen Beñat Narbaizak ahotsarekin lagunduko digu. Biak aurretik ere behin baino gehiagotan elkarrekin jardundakoak dira eta oraingoan gurekin batera joko dute, euren musika Napokaren abestietara egokituta.

- Orain egun batzuk Galizia aldean ibili zarete, ezta?

Bai, aurreko asteko eguaztenetik domekara bitartean Galizian lau kontzertu eman genituen, Lugo, A Coruña, A Reserva eta Aturuxon eta ederto ibili gara, hango talde batekin batera. Esperientzia polita izan da.

- Eta gaur etxean jo eta gero, zein asmo daukazue?

Ba, egun batzuren buruan, hilaren amaiera aldera, Japoniara goaz, hainbat hiritan kontzertuak emateko asmoz. Aurretik ere Japonian ibilitakoak gara, 2008an bira egin genuen eta alde horretatik, bidea zabalik genuenez eta gustora ibili ginenez, berriz bueltatzea pentsatu dugu. Oraingoan, gainera, beste toki batzuetara joango gara eta, beraz, toki berriak ezagutzeko aukera ere izango dugu.


- Euskadi Irratian musikaz berbetan ibili zara azken aldian...

Bai, iaz ere ibili nintzen Udako Faktorian eta aurten errepi-katzeko zortea izan dut. Hala ere, udarekin batera saioa amaitu zen. Kazetaria naizen aldetik irratia gustatzen zait gehien eta, gainera, musikaz berba egiten... oso gustora ibili naiz.



Gazteen kontzertu arrakastasua

Eibarko Musikari Gazteen Elkarteak antolatuta zapatuan Txaltxa Zelaian egindako kontzertuak jendetza batui zuen eta, Skapital City lehen taldeak emanaldia hasi eta berehala euria botatzen hasi zuen arren, musikak erakarrita batutakoek gogor eutsi zioten parrandarako gogoari eta ondoren jo zuten musikariekin kontzertuak amaitu arte dantzan jarduteko nahikoa indar izan zuen.



Bertso saio polita

Beleko tabernak asteburu betea izan zuen aurrekoan eta, bari-xakuan Bidelapurak kontzertua ematen egon eta gero, zapatu iluntzean bertsolarien txanda ailegatu zen. Nerea Ibarzabal, Agin Laburu eta Jokin Bergara ederto aritu ziren bertsotan, tabernan batutako guztien gozamenerako.

XI. San Andres pintxo lehiaketa

Arrate Kultur Elkarteak, Eibar Merkataritza Gune Irekiaren, udalaren eta herriko ostalarien laguntzarekin XI. San Andres pintxo lehiaketa antolatu du. Antolatzaileek azaldu dutenez, taberna bakoitzak pintxo mota bat aurkeztu dezake, identifikatzeko izen batez lagunduta. Lehiaketara aurkezten diren pintxoak bezeroek kontsumitzeko moduan eskaini beharko dituzte, euro bat eta bi bitar-

teko prezioan, azaroaren 19n (eguztena) eta 20an (eguen). Lehiaketan parte hartu nahi duenak urriaren 31rako eman beharko du izena, Arrate Kultur Elkartearen bulegoan zuzenean (astelehenetik eguenera, 17.00etatik 19.00etara), 943202299 telefono zenbakira deituta (mezua laga erantzungailuan)edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita.

Betiko moduan, lehiaketara aurkezten diren pintxoaren artean hainbat sari banatuko dituzte: epaimahaiko kideek pintxo onena zein den erabakiko dute eta, horrez gain, publikoaren sari berezia ere emango dute. Iazko moduan, aurten ere bertoko produktua ondoen erabiltzen duenari ere saria emango diote. Saridun bakoitzak 150 euro jasoko ditu. Epaimahaikoek azaroaren 21ean emango dute erabakiaren berri eta sari banaketa ekitaldia, berriz, San Andres egunean egingo da.



Hilaren 31rako eman beharko dute izena lehiaketan parte hartu nahi dutenek. LEIRE ITURBE

laburrak

CIELITOREN KONTZERTUA

Domekan 12.30etan Carlos Sanchez Barbak zuzenduta kontzertua emango du Cielito Musika Bandak Coliseoan, programa honi jarraituta: "Teatro de Montecarlo" (pasodoblea, J.A. Perello), "El sitio de Zaragoza" (fantasia militarra, C. Oudrid), "Romanza" (zati bat, S. Bacarisse), "Una noche en Granada" (poema sinfonikoa, E. Cebrían) eta "Rapsodia vasca" (rapsodia, V. Beobide). Euririk ez badu egiten, 11.15etan kalejira egingo dute.

JAM SESSION

Gaur 23.00etan #EzDokJam Session hartuko du Ez Dok tabernak eta zapatuan, 23.30etan Skapital City Eibarko ska taldeak kontzertua emango du. Domekan, 13.00etatik aurrera Tonky Blues Band-ek girotuko du eguerdiko poteoa.



SORMENEZKO TAILERRAK

Maite Arriagaren eskutik emango den "Yoga & Sormenezko tailerra" bihar hasiko da, 09.00etatik 13.00etara. Azken momentuan norbait animatuz gero, 622053933 telefonora deituta jasoko du informazio gehiago.

Kaleetan Kantuz eta soinujoleak kalejiran

Bihar ekingo diote Kaleetan Kantuz abesbatzak eta Juan Bautista Gisaso-la Musika Eskolako soinu ikasleek ikasturteari, hilean behineko kalejira eginez. Urriari hasi eta ekainera arte hileroko zapatuetan kaleak euren kantu eta soinuekin alaitzera irtengo dira abesbatza eta musikari gazteak, 19.00etan Untzagatik abiatuta.



Abesbatza eta soinu ikasleak Untzagan egindako ekitaldi batean. LEIRE ITURBE

Hasi da Harixa Emoten

Ana Jakaren "Ez zen diruagatik" liburuarekin hasi ziren Idazlearekin Harixa Emoten literatura saioak martitzenean Portalean. Aurreko urteetan egindakoaren bidetik, ...eta kitto!-k eta Juan San Martin liburutegiak elkarlanean antolatutako saioetan liburuaren egileek ere hartuko dute parte, Antxon Narbaizaren gidaritzapean. Azaroan Asier Serrano ("Abisalia") eta abenduan Miren Agur Meabe ("Kristalezko begi bat") idazleen txanda izango da.



Ana Jakak idatzitako "Ez zen diruagatik" liburua landu zuten. SILBIA HERNANDEZ

○ Espainiaren hizkuntza politika

Euskal Herrian da Hizkuntza Gubxituen Europako Ituneko Adituen Batzordea, sinatutako gutunaren betetze maila aztertzen. Euskalgintzak kezka helarazi die adituei, eta txostenean "egia ez esatea" egotzi dio Espainiari. Kontseilua eta Behatokia erakundeen iritziz, Espainiako Gobernuak ez ditu betetzen Europako Kontseiluak zein Adituen Batordeak egindako gomendioak. Justizia administrazioa, Osakidetza, erantzaintza eta Lanbide Heziketa izan zituzten hizpide, baita Nafarroako Gobernuaren jarrera ere. Hizkuntz Politikako sailburuordeak, bestalde, estatuaren mendeko erakundeetako gabeziak salatu zituen.

○ Elkarlana EITB eta Tokikomen artean

Bi erakundeen arteko hartu-erama gauzatzeko, prozesu bat finkatu dute eta akordioa "pixkanaka" komunikabideetan antzemango da. Tokikom euskarazko tokiko hedabideak biltzen dituen elkartea eta EITB ordezkatzeko, Urko Aristi Tokikomeko presidentea eta Maite Iturbe EITBko zuzendari nagusia izan ziren. Orain arte Euskadi Iratiko "Mezularia" saioan astelehen arratsaldetan "Tokikom tertulia" entzun daiteke eta, hemendik aurrera, EITB osora zabaldu nahi dute akordioa. Bi erakundeek batzuen eta besteen agendak trukatu dituzte eta, aurrerantz, materiala partekatze-ko aukeraz aritu dira.

euskararen txokoa

Arma bilduma berria ikusgai Museoan

Eguazten arratsaldean inauguratu zuten arma erakusketa berria Armagintzaren Museoan. Museoaren sorreraren mendeurrenaren harira antolatutako ekitaldi berezien artean, ate irekien egunak egingo dituzte asteburu osoan: gaur, bihar eta etzi museo bisitatzera doazenek ez dute sarrerarik ordainduko. Horrela aste honetan zabalduko erakusketa berria ikustera ahalik eta jende gehien joatea nahi dute museoko arduradunek.



Museoak ohiko ordutegian zabalduko ditu ateak: barixaku eta zapatuan 16.00etatik 20.00etara eta domekan 10.00etatik 13.00era.

Horrez gain, urriaren 23an Jesus Gutierrezek "Una in-

dustria, una villa. Eibar en 1914" hitzaldia emango du Portalean, 19.30etan hasita. Eta azaroaren 27an museoan bertan "Eibar Industrial 2014" erakusketa inauguratuko dutela aurreratu dute.

Ikastolaren aldeko notak



Ustekabe fanfarrekoak ederto ibili ziren aurreko domekan Orion, Kilometroak jaiaren barruan antolatu zuten ibilbideko hainbat gune euren musikarekin alaitzen. Eibartarrek musutruk jardun zuten kalejiran eguerdian eta bazkalostean, Gipuzkoako ikastolei modu horretan euren laguntza eskainita.



Carmen Mostaza Topalekuan

Topalekuak erakusketa berria hartuko du gaur 19.00etan hasi eta azaroaren 2ra bitartean: Carmen Mostaza eibartarraren zeramika lanak ohiko ordutegian egongo dira ikusgai: astelehenetik barixakura, 19.00etatik 21.00etara eta asteburuetan, berriz, 12.00etatik 14.00etara eta 19.00etatik 21.00etara.



Jardunaldi Mikologikoak ate joka

Eibarko Klub Deportiboak datorren astebururako Jardunaldi Mikologikoen 16. edizioa antolatu du. Barixakuan hasiko den egitarauan, Aranzadiko Pedro Arrillagak hitzaldia eskainiko du, perretxikoen inguruko zalantzak argitzeko. Zapatu goizean herriko ikastetxeetako haur eta gurasoz osatutako hiru autobus abiatuko dira perretxikoak biltzera; arratsaldean, bestalde, perretxiko pintxo dastatzea egingo da hainbat tabernetan. Domekan, amaitzeko, jasotako espezieen erakusketa egingo da T. Etxebarrian, pintxoak egongo dira eta baita bazkaria ere.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, ANDER! Oin dala hiru urte gurera etorri zifanetik, bizitza ederragua ikusten dogu. Patxo haundixak aitta eta amaren partez.



Zorionak, IZARO, gaur sei urte betetzen dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, URKO, astelehenian lau urte beteko dozuz-eta. Muxu bat aitxitxamama eta izeba Mireiaren partez.



Zorionak, ALAITZ Urizar Bravo, gaur 13 urte egiten dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixaren partez. Aupa Eibar!!



Zorionak, XABIER Arrasate Lasa, astelehenian 9 urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, NAIA Guridi, bixar lau urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat famelixa guztiaren eta, batez be, Alaitzen partetik.



Zorionak, HIART, martitzenian bost urte egin zenduaz-eta. Patxo haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, IKER Unanue, martitzenian 12 urte bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, JAKES, atzo sei urtetxo bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat aitta, ama eta Unaxen partez.



Zorionak, INAR, atzo urtetxua bete zenduan-eta. Laztan haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, DANEL, bixar 11 urte egingo dozuz-eta. Muxu potolua famelixaren partez.



Zorionak, IBANE, martitzenian 12 urte beteko dozuzelako. Famelixaren partez.



Zorionak, JULIA eta RICARDO. Muxu haundi bat Mikel eta Jessicaren partez eta ondo pasa eguna.



Zorionak eta ongi etorri, ELENE. Ama, aitta eta JUNEn partez.



Zorionak, BIKOTE, bixar helduko da-eta zuen egun berezixa. Laga alde batera nerbixuak eta disfrutau. Ondo pasa. Zuen Mendaroko Haizea, Ion eta Amadoriren partez.



Zorionak, PACO eta ROSA, zuen urrezko ezteietan. Laztan haundi bat famelixa guztiaren partez.

zinea Coliseoan

(ANTZOKIAN)
11n: 19.45, 22.30
12an: 20.00
13an: 20.30

"La isla minima"

Zuzendaria: Alberto Rodriguez

(ANTZOKIAN)
11n: 17.00
12an: 17.00

"La abeja Maya"

Zuzendaria: Alex Stadermann



hildakoak

- Rosario Alberdi Unanue. 89 urte. 2014-X-2.
- Salvadora Atxa Gisasola. 92 urte. 2014-X-2.
- Ramon Castro Cabezuolo. 83 urte. 2014-X-2.
- Fermin Etxaluze Orozko. 59 urte. 2014-X-3.
- Diego Ortiz Sanchez. 72 urte. 2014-X-3.
- Andres Ruiz Merchan. 83 urte. 2014-X-4.
- Jose Luis Elorza Txintxurreta. 87 urte. 2014-X-4.
- Basilio Oregi Ariznabarreta. 90 urte. 2014-X-5.
- M^o Luisa Arriola Aranzadi. 71 urte. 2014-X-5.
- Rosa Mari Aranegi Zabaleta. 73 urte. 2014-X-7.
- Juan M^o Prieto Gisasola. 82 urte. 2014-X-7.
- Felix De la Rosa Etxabe. 57 urte. 2014-X-7.
- Rosario Uribeetxeberria Elorza. 70 urte. 2014-X-8.

jaiotakoak

- Noa Ramos Gil. 2014-IX-28.
- Kemen Mora Lopez. 2014-X-1.
- Abderrahman El Haddan. 2014-X-2.

BARIXAKUA 10

INDIANOKUA

16.30. Disparate Eguna. Gaztelekuan.

KONTZERTUA

20.30. Napoka Iria & Iñaki Larrañaga (6 euro). Coliseoan.

ZAPATUA 11

EIBAR TRIATLOIA

11.30. Eibar Triatloi Taldearen 25. urteurrena. Umeen duatloia (izen-ematea ikastetxetan).

12.30. Herri duatloia, 15 urtetik gorakoentzat (izen-ematea egunean bertan, Klub Deportibo parean).

13.00. Txirrindularien kriterium lasterketa.

14.00. Talde argazkia. Untzagan.

14.30. Bazkaria, umeendako jolasak eta musika, DJ Arnorekin. Untzagan.

INDIANOKUA

17.00. Eskulanak: boloak margotu. Gaztelekuan.

UMEENDAKO TAILERRA

17.30. "Maskara beldurgarriak" umeendako tailerra. El Corte Inglesean.

KALEETAN KANTUZ

19.00. Kaleetan Kantuz eta Musika Eskolako soinu-joleen kalejiraren hasiera. Untzagatik abiatuta.

DOMEKA 12

KONTZERTUA

12.30. Cielito Musika Bandaren kontzertua. Coliseoan.

INDIANOKUA

17.00. Play / Wii. Gaztelekuan.

MARTITZENA 14

HITZALDIA

18.30. "Inmigrazioa: estereotipotik xenofobiara", Pepe Oleaga EHU-ko soziologaren eskutik. Portalean.

HITZALDIA

19.00. Kike Amonarriz: "XXI. mendeko euskaldunak: nola aldatu(ko) diren gauzak, kamarada!" hitzaldia. ...eta kitto!-n (Urkizu, 11 solairuaratean).

EGUAZTENA 15

HITZALDIA

18.00. "Sufritzea eragiten didana era eraikitzailean bizi", Arantzazu Loidiren eskutik. Portalean.

BATZARRA

19.00. Udal hauteskondeei buruz Eibarko EH Bilduk deitutako batzar irekia. Arrate Kultur Elkartearen.

EIBARKO KANTUZALEAK

19.00. Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokalean.

EGUENA 16

HITZALDIA

19.00. Edoskitzeari buruzko hitzaldia, amentzat. Informazioa eta izen-emateak jaioberrien sailean. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

BATZARRA

18.30. "Herriarrek in martxan" garraioari buruzko bilera irekia. Udaletxean.

KALERATZEAK STOP

19.00. Kaleratzeak Stop Debabarrenaren batzar irekia. Portalean.

diru-laguntzak

✓ Diru-laguntzak ikasleei / Umeak Eskolara

Zenbatekoa: 60'10 euro. **Eskaerak aurkeztea:** Eibar Merkataritza Gune Irekian (Untzaga Plaza, 7- 3. behe), urriaren 31ra arte.

Informazio gehiago: Pegoran.

Ikastaroak

✓ UEUko ikastaroak

Eskaerak eta informazioa: www.eibar.net helbidean eta Pegoran.

HOROSKOPOA

ARIES

Konturatuko zinen ligatzeko erabiltzen dituzun teknikak es dutela aurrera egingen. Hobe naturaltasunez jokatzea!

TAURUS

Hanka barruraino sartu eta korapilotik nola atera ez dakizula zabilta. Lehen pausoa? Agian, barkamena eskatzea.

GEMINI

Gezurretan zabilta eta harrapatuko zaituzte. Txarrena da horrek ez duela arazoa konponduko; aurre egin behar!

CANCER

Noiz arte egongo zara begira, zeozer esaten ausartu barik? Baztertu lotsak eta hurbildu, berak ere badaki-eta!

LEO

Bizitza jolasa moduan hartzen duzu. Ondo dago umorez hartzea, baina komeni ez diren umekeriak ez egin!

VIRGO

Orrazkera aldatu duzunetik, beste bat ematen duzu. Ez galdu zure nortasuna modako orrazkera eramatearren.

LIBRA

Gauzak behin esanda nahikoa da! Ea ikasten duzun! Gauzak errepikatzearren ez dizute kasu gehiago egingo, astunori!

SCORPIUS

Koadrilako liderra, saltsa guztietako perrexila zara: beti planak antolatzeke prest. Ez hartu ardura larregi zure gain!

SAGITTARIUS

Agenda, post-it, ... Nahi duzuna erabili, baina egizu zerbait, arren. Esan orduko, egin behar duzuna ahazten zaizu-eta.

CAPRICORNIUS

Moda jarraitzea gustatzen zaizu, baina ezin duzu denetik izan. Aurreratu dirua eta behar den moduan administratu.

AQUARIUS

Ezin duzu pertsona hori ahaztu, ezta? Agian behar zenezan bidali ez zenuen SMS hura bidaltzeko unea iritsi zaizu.

PISCIS

Denentzat eta denerako denbora izaten duzu beti. Edozer dela-eta, eskertzekoa da zure moduko laguna inguruan izatea.

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

- ✓ **Urriaren 12ra arte**
CERAMIC SUITE erakusketa. *Portalean*
- ✓ **Urriaren 29ra arte**
"ZURRUMURRUAK DESEGITEN" erakusketa.
Untzagako Jubilatuta Etxean
- ✓ **Urriaren 31ra arte**
"KIROLA/ATLETISMOA" argazki erakusketa.
Klub Deportiboan
TXUS LEAL-EN argazki erakusketa.
Portalea tabernan.
OSCAR BLANCOREN argazki erakusketa.
El Ambigu tabernan
- ✓ **Azaroaren 2ra arte**
CARMEN MOSTAZAREN zeramika erakusketa.
Topalekuan

farmaziak

- ✓ **barixakua 10**
EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
- ✓ **zapatua 11**
EGUNEZ **Larramendi** (Calbeton, 19)
- ✓ **domeka 12**
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
- ✓ **astelehena 13**
EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
- ✓ **martitzena 14**
EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
- ✓ **eguztana 15**
EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
- ✓ **eguna 16**
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- ✓ **barixakua 17**
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI
Azkue (T. Etxebarria, 4)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....112
Pegora010
Udaletxea943 70 84 00
Portalea.....943 70 84 39
Udaltzaingoa.....943 20 15 25
Mankomunitatea 943 70 07 99
Debegesa943 82 01 10
KIUB943 20 38 43
Epaitegia943 03 34 00
Iberdrola901 20 20 20
Naturgas902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..943 46 46 22
Gurutze Gorria...943 22 22 22
Mendaro osp.....943 03 28 00
Anbulategia943 03 25 00
Torrekua943 03 26 50
Errepideak.....902 11 20 88
Ertzaintza943 53 17 00
Eusko Tren902 54 32 10
Pesa.....902 10 12 10
Taxiak943 20 30 71
.....943 20 13 25
Alkohol.Anon....629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.50etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.50etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 14.50etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.50etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.50etatik 20.50etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.50etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 08.45, 12.45, 16.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45 eta 13.50. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.35etara 20 minuturo eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50etatik 21.10etara 20 minuturo eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **DONOSTIA-EIBAR.** Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47. **EIBAR-BILBO.** Egunerok: 08.15etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.56. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

lehiaketak

- ✓ **Sanandresak Eibarren Kartel Lehiaketa**
Lanak aurkeztea eta informazioa: *Urriaren 14ra arte*, Pegoran.
- ✓ **Eibarko XI. Pintxo Lehiaketa**
Izen-ematea: *Urriaren 31ra arte*. Informazioa: Arrate Kultur Elkartearen bulegoan (astelehenetik eguenera, 17.00etatik 19.00etara), 943202299 telefonoan edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzita.
- ✓ **San Andres bertso-paper lehiaketa**
Lanak aurkeztea: *azaroaren 10era arte*. Informazioa: ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuarean), 943200918 telefonoan.

		7		2	1		
6	1			3	2		
		2	8				
8	3			5	9		
			4	8		7	1
				8	7		
		9		4		2	8
		4	2		3		

SUDOKUA

3	1	7	6	5	4	9	8	2
6	5	8	2	9	3	1	4	7
9	4	2	8	1	7	5	6	3
1	3	6	9	4	2	8	7	5
4	8	9	5	7	1	3	2	6
7	2	5	3	8	6	4	9	1
8	9	3	7	6	5	2	1	4
2	6	1	4	3	8	7	5	9
5	7	4	1	2	9	6	3	8

AURREKOEN EMAITZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Etxebizitza salgai erdialdean. 3 logela, egongela, sukaldia, 2 komun eta trasteroa (130 m² erabilgarri edo 156 eraikiak). Igogailua. Argitsua. Guztiz jantzita eta bizitzera sartzeko moduan. Tel. 626-203838 edo 699-495249.

– Pisua salgai beheko solairuan J.A. Mogel kalean. 3 logela, egongela, sukaldia eta komun. Bizitzera sartzeko moduan. Tel. 619-619254. Cristina.

– 7 urteko etxebizitza salgai Mendaron. 3. solairua (118 m²) eta bi garaje bat egonik (43 m²). 3 logela, egongela, sukaldia, 2 komun, hall-a eta terraza (20 m²). Trastelekua aukeran (27 m²). Komunitateko lorategia eta haurrentzako jolas-gunea. Argitsua eta bistak. Tel. 616-668742.

1.2. Errentan

– Pisua alokagai Ipuruan. 2 logela, sukaldia-egongela eta komun. Lagun batendako edo bikote batendako egokia. Egoera onean. Tel. 696-045050.

3. Lokalak

3.2. Errentan

– Garaje itxia alokagai Eibar erdialdean. Tel. 617-688311.

– Gasteiztako lokala alokagai. 70 m². Barra eta zerbitzuarekin. Erdialdean. Tel. 679-425467.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Gizona eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Tel. 650-513412.

– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako edo kamarera jarduteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 631-771952.

– Mutil arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketarako edo zama-lanetan jarduteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 602-309313.

– Emakumea eskaintzen da gauz nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 682-277198.

– Emakumea eskaintzen da gauz nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 697-754174.

– Emakumea eskaintzen da gauz nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 632-176974.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 674-713262.

– Neska euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 689-391261.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak edo umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 602-186462.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Interno. Esperientzia. Tel. 628-740765.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-259560.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Interna. Tel. 649-626975. Landi Mora.

– Geriatria titulua duen emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 652-532589.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Ordu-tegi zabala. Tel. 602-057896.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 637-004773.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Ordu-tegi zabala. Tel. 655-677035.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 680-973549.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauz ere. Esperientzia. Oinarrizko euskera maila. Tel. 630-268100. Manoli.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka edo externa. Tel. 648-180233.

– Neska eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko: pegoarak, bulegoak... Tel. 638-421827.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Tel. 603-740755.

– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta baserriko lanak egiteko. Esperientzia tailerrean tomero lanean. Tel. 633-892829.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 631-768803.

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 631-667062.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauz ere), umeekin egoteko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-417995.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 638-908730.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 602-057896.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldia-laguntzaile jarduteko eta baserrian edo eraikuntzan lan egiteko. Tel. 688-302653. Manuel.

– Emakumea eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-055905.

– Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia nagusiak zaintzen, banatzaile moduan eta lorezain jardunean. Tel. 608-661323.

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 631-498697.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 637-966749.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Erreferentziak eta gidatzeko karneta. Tel. 631-343232.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 602-149777.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 632-823247.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 637-406227.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 617-171806.

– Magisteriza ikasi duen neska euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 659-671428.

– Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 681-065683.

– Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Tel. 639-438641.

– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lanetarako. Tel. 639-611454.

– Mutila eskaintzen da furgonetarekin banaketa lanak egiteko. Tel. 695-702318.

– Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 638-338816.

– Emakumea eskaintzen da garbiketarako lanak egiteko eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Ordu-tegi zabala. Tel. 608-523426.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 632-525042.

– Mutila eskaintzen da umeak zaintzeko eguerditik aurrera. Tel. 664-464679.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Interna. Tel. 637-406227.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 681-376013.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 655-677035.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 943-425443.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeak edo tabernak garbitzeko. Tel. 638-338816.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 677-259560.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 648-180233.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 642-609678. Piedad.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Erreferentziak. Tel. 631-282203.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 662-252150.

4.2. Langile bila

– Sukalde-laguntzaile behar da Eibarko jatetxe batean. 5 urteko esperientzia gutxienez. Bidali curriculum-a: 46 posta-kutxatila.

– Drogetenituri aldizkariak koordinatzailea behar du. Euskaraduna izatea, ondo idazten jakitea eta kazetaritza ikasketak izatea baloratuko da. Bidali curriculum-a urriaren 6a baino lehen: drogeten@gmail.com

– Elektrizista, iturgin edo antzeko ofiziotan esperientziaduna behar da. Bidali curriculum-a, argazkiarekin: ezenarro13@gmail.com

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Euskarazko klaseak ematen dituzte. Azterketarako prestaketa: perfilak, HABEren maiak, EGA. Baita ikastaroak eta klase partikularak. Tel. 620-608065.

– Abesten ikasteko klaseak ematen dira Eibarran: pop, rock, jazz, folk... Musikalak eta kasting prestaketa, zure ahotza era zuzen batean erabiltzeko. Tel. 622-885340.

– Magisteriza duten bi neska eskaintzen dira HH, LH eta DBHko klase partikularak emateko. Tel. 667-261248 (Leire) eta 620-694757 (Joana).

– Diplomatura mailako tituludun neska eskaintzen da klase partikularak emateko. Tel. 662-283676.

– Ingeles Filologian lizentziatua eskaintzen da klase partikularak emateko. Tel. 688-650752.

– 24 urtetan Ingalaterran bizi izandakoak bere burua eskaintzen du ingelesez praktikatzeko. Tel. 679-910991.

– Unibertsitate ikasketak egindakoek klase partikularak ematen dituzte. Taldeka edo banaka. Beharpen bereziki. Tel. 687-033834. Nerea.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Umeendako arropa salgai (12-14 taila). Txamarra, sudadera eta prakak (Ternua eta Astore). Tel. 645-007388.

– Orbea Zeus Euskaltei bizikleta salgai. Aluminiozkoa, 2000. urtekoa, 54 M tallakoa, Shimano 105 Triple gurpilak. Rigido Xone Pro-line. 390 euro. Tel. 626-464422.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Zapatuan belarritakoa galdu nuen San Andres egoitza eta Untzaga artean. Urrezkoa da, harri berdearekin. Tel. 943-821279.

3.
FASEA

www.garraioahobetzen.net



herritarrekin
martxan en marcha



 **Gipuzkoa**
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua



 **Gipuzkoa**
BERRIA

Informazio gehiago:
www.garraioahobetzen.net

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZU BERRIA EZAGUTU NAHI?

4.000 herritar baino gehiagok egindako ekarpenak kontuak hartuta, Gipuzkoako Foru Aldundiak autobus zerbitzu berria jarriko du martxan 2015ean. Zerbitzu berriak ezagutzeko, zatoz zure eskualdean egingo den bilerara:

**Urriak 16, Eibarren,
udaletxean, 18:30ean.**



LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**

Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfontso X.a Unibertsitatea. Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**

Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamancako Unibertsitatea.**

Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**

Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.

Hortz-Estetikan Diplomatua.

Autran Institutoa, Bartzelona.

Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**

Oklusioan Graduondoa.

Anibal Alonso Doktora.



Astelehenetik ostiralera:
8:00etatik **22:00**etara

Zapatuetan:
10:00etatik **14:00** etara

Eibarko Dendarien Elkarte
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ
Galdetuiguazu!



MUTUAK ETA ASEGUURAK

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGON/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...

Galdetuiguazu!



IRAZABAL

clínica dental

FINANTZIAZIO BEREZIA

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com